

noaua

**Usurbilgo
Gaztetxearen
etorkizuna, kolokan**

**Kilometroak-en
batzordeetan izena
emateko garaia da**

**Andoni Egaña eta
Xabier Lizaso, igande
honetan Sutegin**



Txikia, handitzen

**Aspaldiko eskaerari erantzunez,
Zubietako Eskola Txikia berritzen hasi dira**

Albistea iruditan

Valderejo parkean barrena



Araba eta Burgos artean kokatzen da Valderejo parke naturala. Hara joan ziren aurreko igandean hainbat herritar. Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak antolatutako ibilaldia.

Laburrean

Urdiñarbera, laguntzera

Zuberoa aldera joango da usurbildar talde bat, Iparraldeko Seaska ikastolen aldeko elkartasun afarira. Afaria, urriaren 25ean ospatuko da. Otorduan handik ateratako laguntza Seaskako Integrazio Batzordera bideratuko baita. Animatzen dena bertara dadila.

1952koen kinto bazkaria

Duela 62 urte jaiotako usurbildarren bazkaria azaroaren 30ean, 14:30etan Patri jatetxean. Menua 35 euro. Izen emateko deitu 943 361 380 telefono zenbakira, azaroaren 19a asteazkena baino lehen.

Ipuin kontalaria Sutegin

Ikasturte berrirako lehen ipuin kontaketa saioa antolatu dute Sutegi udal liburutegian, urriaren 23rako, arratsaldeko 18:00etan. Miriam Mendoza arituko da kontu-kontari, sei urtetik gorakoei zuzendua egongo den saioan.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Arantxa Zulaika, publizitatea@noaqua.com

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Uclala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

L letraren inbasioaz

Hirien periferian bizitzeak bere ondorioak ditu. Adibidez? Ba auto-eskoletako autoen inbasioa pairatu behar izatea. Ez dut uste bakarra naizenik. Presaren presaz autoan sartu zara eta, hara! Auto-eskola bateko autoa aurretik. Prensaurrekoa hasteko 10 minutu falta dira eta martxa honetan ez naiz iritsiko... Alboan utzi duzu azkenean eta, tapa, beste batekin egin duzu topo!

Auto horientzako peaje bat jarriz gero, Usurbilgo

Udalak xoxa eder batzuk eskuratuko lituzke. Baina tira, peaje kontuak dauden tokian utziko ditugu. Behin hasita, denoi kobratzen amaituko dute igual eta, *kontu bazpa*, aitatzea ere ez da komeni.

Erreportaje bat egin beharko genuke honi buruz. Edo inkesta bat Donostiako auto-eskolen artean. Zer du Usurbilek inguruko beste herriek ez dutena? Gidari berriak trebatzeko gure errotondak dira onenak akaso? Usurbildarrak adeitsuak direlako etortzen zarete denak txoko honetara? (Eta batzuetan,

auto denak bata bestearen atzetik, ilaran...). Gasoila merkeagoa al da ba inguru honetan? Isun gutxiago ipintzen al dituzte Usurbilgo munizipalek?

Beti miretsi izan dut berez adeitsua den jendea. Eta horregatik, besteekin ere adeitsu izaten saiatzen naiz. Are gehiago, gidari hasi berri batekin. Autoa gobernatzen ikasten ari dena aztoratzea ez da komeni. Nahikoa lan badu gizarajoak seinale denei erreparatzen, abiadura egokia mantentzen...

Guk ordea, isunik ez jaso-

tzeko moduan gidatzen dugu. Ustez radarrak dauden tokietan abiadura jaitsiz, eta hortik aurrera, dena libre! Intermitenteak ipintzeko ere ganora gutxiarekin.

Batzuetan pentsatu izan dut, Auto-Eskolen Herria izendatu ote dute Usurbil eta NOAUA!n enteratu ez? Hala bada, Udalak ohartarazi egin beharko lituzke bisitariak. "Usurbilen euskaraz bizi gara", "Usurbilen fracking-ik ez..." txartelen ondoan, beste txartel bat ipini beharko litza-teke: "Usurbil, auto-eskolekin senidetuta".

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

Ika-mika

Bizilagunak, Elkarbizitzarako moduen bila

Zer da Bizilagunak?

Datorren azaroaren 23an, igandez eta eguerdiko ordu biak aldera, bi familia, bata bertakoa eta bestea etorkina, haietariko baten etxean elkartzeko dira elkarrekin bazkaltzeko. Gauza bera gertatuko da Euskadiko etxe askotan. Bazkari bakoitzean, familiez gain dinamizatzaile batek ere parte hartuko du antolaketan laguntzeko.

Ah! Eta uler bedi familia lotura, harremanak, maitasuna... bizitza konpartitzen dutenak.

Beharrezko osagaiak: bertako familia bat, atzerriko familia bat, begirada baikorra, jakinmina eta ezagutzeko gogoia, igande horretan bizpahiru orduko tartea izan eta

bazkaria ospatzeko etxea eta bazkaria bietako baten etxean antolatzen lagunduko duen dinamizatzailea.

Emaitzak, aurretik jakin ezinak hain izan daitezke onak... orain arte ez da albo-ondorio txarrik edo kontrako erreakziorik eman.

Bizilagunak zergatik eta zertarako?

Asko garelako, bertako zein etorkin, gustora hurbilduko ginatkeenak, baina ez dugu egokiera edo lekua aurkitzen.

Elkarren ezagutza erraztuko duten bideen bila gabiltza, nola bizi elkarrekin eta ez soilik bata bestearen alboan. Bizilagunak ezagutzak

eta harremanak errazten ditu, adiskidetasunak bertakoen eta etorkin bertakotuen artean. Bizilagunak oso gutxi eskatzen du, bizpahiru ordu eta jarrera positiboa, jakinmina. Horren truke orain arte onurak besterik ez dituzte izan parte hartu dutenek. Beste hainbat udalerrik eta elkarteren modura, Usurbilgo udalak ere laguntzen du Bizilagunak antolatzen.

Jakin nahi al duzu zer dioten jada aurreko ekitaldietan parte hartu dutenek?

Rosa (Donostia): "Esperientzia hau berezia izan da seme-alabentzat: beste herrialdeetako jendeekin

egon eta ezagutzea, beste bizimoduak, eta aldi berean ohartzeta ez gabela hain desberdinak".

Rocio (Irun): 10etik 20ko nota! Bazkaria bukatutakoan, hunkituta, Julia besarkatu genuen, hain ondo egon zen dena. Gonbidatzaileekin hainbeste kointzidentzia genituen... zoragarria!

Nahi al duzu bazkari bat antolatu, parte hartu

Deitu edo idatzi 943 32 18 11 info@mugak.org edo mugak.eu atarian izena eman

Aintzane Iribar, SOS Arrazakeria

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 24. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 20.

Buruntzalderako garapen agentzia lantzen dabil EAJ-PNV

Publikoa, gardena eta kalitatezkoa izango den garapen agentzia bat martxan jarri nahi du Buruntzaldean, bailarako EAJ-PNVk. Aurreko astean, Lasarte-Oriako Villa Mirentxun aurkeztu zituzten hilabeteetan lantzen aritu diren garapen agentzia honen ardatz nagusiak. Ekitaldian bailarako EAJ-PNVko udal ordezkariak parte hartu zuten; Usurbilgo zinegotzi Josune Urkolak tartean. Eta berarekin batera, Lasarte-Oriako bozeramaile jeltzale den Estitxu Alkortak, Urnietako alkate Mikel Pagolak; EAJren Hernaniko bozeramaile Andoni Amonarraizek; Andoaingoak, Mari Jose Izagirrek; eta Astigarragoak, Zorione Etxezarragak.

Ekonomiaren suspertzea, enpleguaren sustapena eta turismoa dira, EAJ- PNVk Buruntzaldearako proposatzen duen garapen agentziak izango litzuzkeen lan esparru nagusiak. Enplegua sortzeko, enpresen arteko itunak sustatu nahi dituzte, eskualdeko langile eta produktuak

merkaturatzen ahalegintzearekin batera. Udaletan hautaturiko Gobernu Batzordea, presidentea eta gerentea izango litzuzke agentziak. Eragile politiko guztien parte hartzea bermatu nahi dute eta “planteamendu baztertzailak” saihestu.

Adostasun bila

Garapen agentzia bailarako sei udalerrirentzat onuragarri suertatuko dela gaineratu zuten aurkezpen ekitaldian, eta hartara, euren esanetan, eskualde mailako egitura gabeziari erantzungo zaio. Argitu dutenez ordea, ez dute egitasmoa presaka martxan jartzerik nahi. Pausoka, eta ahalik eta adostasun maila handiena bilatuz sustatu nahi dute. “Helburua argia da: Buruntzaldeak kalitatezko garapen agentzia behar du. Baina, behar horrek ezin gaitu gauzak korrika eta presaka egitera bultzatu. Adostasunetik abiatuta, EAJ-PNVk ahalik eta agentzia onena sortzeko helburuarekin lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen du”, adierazi zuten agerraldian.



Aurreko astean eman zuten aditzera landu duten egitasmoa.

Bailarako azterketa sakona egiteko asmoa

Presarik gabe eta zuhurtziaz jokatu nahi dutela diote jeltzaleek. Zenbait kontu zehazteke dituztela adierazi zuten. Ezinbestekotzat jotzen dute, agentzia berme juridiko eta tekniko guztiekin sortzea. Horretarako, bailarako azterketa sakona eta sei udaletako kontu hartzaileen eta idazkarien aldeko txostenak izatea proposatuko dute.

Eskualdeko Garapen Agentzia Integrala abiarazi dute

Buruntzaldeko sei udalek

Historikoki “abagune paregabe baten aurrean gaude, orain dela bi urte ereindako hazitik sagarrondo eder bat jaio baita. Gure sagardotegi propioa sortzeko sagarrondo eta sagarrari ahalik eta zuku gehien ateratzeko eta anbizio handiko proiektua gauzatzeko tresna. Guztion artean sortutako sagardotegi propio hori izango da gaur, gure eskualdeko udalerrietan ordezkari bidez proposatzen dizuegun garapen integraleko agentzia berria. Datozen asteetan udaletara eramango dugu proposamena, sostengua eman diezaioten eta hartara Buruntzaldeko garapen sozioekonomikoari, etorkizun berri bati atak irekitzeko moduan egon gaitezen”. Egitasmoa, eskualdeko sei udalen, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnietari eta Usurbilen eskutik dator.

Azken bi urteotako udalon elkarlanari esker eta “aro berri bat abian jarri dezakeelakoan” aurkeztu zuten egitasmoa Buruntzaldeko udalek, astearte goizean Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean

egin zuten agerraldian. Modu honetan, eskualdeak duen gabezia bati erantzun nahi zaio. Gipuzkoa mailan garapen agentzia bat ez duen eskualde bakarra baita Buruntzaldea. Beste eskualdeetan aldiz, esperientzia handia dute alor honetan.

Beharra handitzen

Buruntzaldean azken bi urteotan hainbat urrats eman dira. 2012ko maiatzean, garapen ekonomikoa eta enplegua sustatzeko Eskualdeko Lankidetzaren Protokolo Orokorra izenpetu zuten, Buruntzaldeko sei udalek. Ordutik, eskualdeko enplegu plana landu dute, sindikatu, enpresa, langabetuen elkarte, heziketa zentro, eta abarrekin. Horri esker, enpresa berriak sortzeko prestakuntza edota enpresa sortu berriei laguntza eskaintzen aritu dira.

Lan karga handitzen joan da gainera, egun, “Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren diru-laguntzak kudeatzera eta horrekin batera udalek eskualdeko enplegura zuzendutako milioi bat eurotik gorako ekarpenak” egitera heldu dira. Horregatik defendatu zuten garapen agentzia



Astearte honetan egin da egitasmoaren inguruko agerraldia Lasarte-Orian.

baten beharra duela Buruntzaldeak; egungo lanak kudeatu eta etorkizunean proiektu handiagoak prestatzeko; “inguruko enpresetan hobekuntzak eta berrikuntzak egiteko, klusterrak sortzeko, gure baliabideak internazionalizatzeko....”.

Agerraldian, udal ordezkariak egitasmo honen alde egin duten guztiak zoriondu nahi izan zituzten. Gogoan izan zituzten bereziki, eskualdeko udaletako teknikariak. Eskualde mailako halako egitura baten faltan, urteotan egin duten lankidetzaren eta elkarlanagatik.

Metroz metro, urtebeteko ibilbidea osatzera

2015EKO KILOMETROAK ANTOLATZEKO LEHEN URRATSAK EMAN DITU UDARREGI IKASTOLAK

Ursurbil Kilometroak urtean murgildua da jada, atzera kontua martxan. Kilometroak 15 aurkezteko jendaurreko lehen aurkezpen bilerak burutu dira asteburuan Potxoenean. Datorren urteko urriaren 4an Usurbilen ospatuko den jaialdi erraldoia prestatzeko nondik norakoak azaldu zituzten. Jende askoren laguntza beharko dela azpimarratu zuten, eta honenbestez, dagoeneko martxan diren lan batzordeetan parte hartzera gonbidatzen dituzte herritarrak. Erronka argia dute antolatzaileek; auzolanerako “sare indartsu bat osatu beharra dago”, adierazi zieten ostiral arratsaldean, Potxoenean buruturiko lehen aurkezpen bilerara gerturatu ziren herritarrei.

Helburu ekonomikoak

eta gehiago

Kilometroak 2015 laguntza ekonomikoa biltzeko baliatuko da. Eraikin berrian eginiko inbertsioari aurre egin behar zaio. Udarregi Ikastolak gainera baditu, gauzatzeke dituen beste zenbait proiektu ere; hala nola, HH eta LHko eraikin atzealdeko frontoia estaltzea edota ikasturte honetan HH 3-6 urte artean abiatu duten proiektu pedagogiko berrirako azpiegitura osatzen joatea.

Helburu ekonomikoetatik



Aurreko astean egin zen Kilometroak-en inguruko lehen bilera.

haratago ordea, badira Kilometroak egitasmoarekin bete nahi diren beste zenbait erronka ere, Potxoeneako aurkezpen bileran azaldu zuten; hala nola, euskararen erabilera sustatzea, ikastolako proiektua indartzea, edota gure artera etorriko direnei, Ursurbil eza-gutuzera ematea.

Kilometroak antolatu izan duten beste udalerrietako esperientziei erreparatuta gainera, datorren ikasturte hau aukera ona izango omen da herri kohesiorako ere. Jaialdia antolatzeke aitzakian, herritarren arteko harremanak estutzeko garai aproposa. Elkarlanean, auzolanean oinarrituko baita

AUZOLANERAKO DEIA

“Auzolanerako sare indartsu bat osatu beharra dago, hala adierazi zieten ostiral arratsaldean, Potxoenean gerturatu ziren herritarrei”

Kilometroak 2015.

400 lagun auzolanean aritzeko prest...

Jada 400 lagunek eman dute, Kilometroak 2015eko batzordeetan parte hartzeko izena. “Gu guztion indarra” beharko da, zioten Potxoeneko bileran.

Eta baita gehiagorena ere.

Eta gehiago behar dira

Martxan jarri diren batzordeetan eskertuko dute jende gehiagoren parte hartzea. “Animatu eta parte hartu!” hauxe antolatzaileen gonbita usurbildarrentzat. Izen emateko inprimakiak udarregi.com atarian eskura ditzakezue. Edo beste-la, deitu ikastolako idazkari-tzara; 943 36 12 16.

KMK2015, sare sozialetan

facebook.com/kmk15usurbil
twitter @kmk15usurbil
instagram @kmk15usurbil
traola #Kilometroak15

Pinturas Ion

KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (FISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

ETXETRESNEN KONPONKETAK

Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK

645417665
XABIER
Usurbil

Kima

MASAJE LEKUA

· KIROI MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Batzordeetan izena emateko garaia

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, ekonomia eta arropa salmenta batzordeetan dago une honetan, jende behar handiena. Hauek dira osatu diren batzordeak eta lan talde bakoitzak izango dituen zeregin nagusiak:

Ekonomia

Eraikin berria eta datorren urte honetan zehar antolatuko diren ekimenak finantzatzeko lanean jardungo du batzorde honek. “Gure zozketa” izeneko ekimena jarriko asmo dute martxan. Tonbola, salmenta postuak... ere jarriko dira.

Arropa salmenta

Kilometroak 2015eko irudi eta aldarrira islatuko dituen arropa salgai izango da urtean zehar, Usurbilen zabalduko den dendan. Bertako kudeaketa lanaz arduratuko da batzorde hau. Honez gain, Gipuzkoa mailan antolatuko diren azoka eta ekimenetan salmenta postua jartzeaz arduratuko da taldea. Zenbat eta jende gehiago apuntatu, orduan eta irteera gutxiago egin beharko ditu talde bakoitzak. Batzorde aproposa, koadrilek izen emateko.

Ingurumena / Garbitasuna

Jendartean gai honekiko jarraera egokiak sustatzeko lanean jardungo du batzorde honek. Aurre lanketa bat ere egin nahi da, hondakinak kudeatzeko modu egokiaren inguruan. Usurbilek gainera, gai honetan ardura berezia duela gogorarazi dute antolatzaileek. Eredu baita jasangarritasunean.

Prebentzioa

Sortu litezkeen ezbeharrei aurre egiteko larrialdi zerbitzuak, sorospen postuak kudeatzeaz



Ekonomia zein arropa batzordeak dira premia handiena dutenak.

arduratuko da talde hau. Aurrelanketa bat ere egin nahi da, urteotan Kilometroak egunez kezka eragin ohi duen alkohol kontsumoaren inguruan.

Zirkuitua / Trafikoa / Segurtasuna

Kilometroak eguneko ibilbidea zehaztea izango da talde honen zereginetako bat, baita jaialdi egunean bertan aparkalekuak edota trafikoa kudeatzea ere.

Muntaketa

Urtean zehar nahiz Kilometroak 2015 ospatuko den egunean beharko diren azpiegiturak muntatu eta desmuntatzeaz arduratuko dira. Muntaketakoak, une honetan, Kilometroak denda prestatzeko lanetan murgilduak dabilta.

Ikuskizunak

Laguntza biltzeko nahiz Kilometroak 2015 girotzeko, urtean zehar antolatuko diren ekimenak Ikuskizunak batzordekoek prestatuko dituzte. Kilometroak ospatu aurreko asteetan ikusmina sortu ohi duen egitaraua ere batzorde honek landu eta zehaztuko du.

Komunikazioa

Kilometroak 2015ak emango duenaren berri zabaltzeaz arduratuko da batzorde hau,

euskarri desberdinen bidez. Herrigintza, eta Udarregi Ikastolak martxan duen hezkuntza proiektu berritzailea ezagutaraztea izango dira talde honen erronka nagusietakoak. Ostiraleko bileran ohartarazi zuten, kartel pegadarako jendea beharko da.

Txosnak

Urtean zehar antolatuko diren ekimenetan nahiz Kilometroak egunez jarriko diren txosnak kudeatzeaz arduratuko da batzorde hau.

Erronka

Gipuzkoako hainbat ikastolako ikasle talde, kirol proba ezberdinen bueltan lehian jartzen dituen Erronka ospatuko da Usurbilen, ekimenak pasa berri diren Tolosako eta Orioko edizioetan harrera ezin hobia izan ostean. DBHko ikasleen parte hartzea sustatzen duen egitasmo honek, Kilometroak eguna kirola eginenez, lagun artean ondo pasatzeko aukera eman nahi da. Erronka antolatzeko batzorde bat osatu da.

Ikasle Batzordea

Udarregi Ikastolako ikasleen parte hartzea sustatu nahi du bilgune honek. Ikasleek ere antolaketa lanetan murgildu eta erabakiak hartzeko gune bat izan dezaten.

Lekukoa herriari eskainiko zaio ostiralean

Ostiral arratsaldeko 19:30etan Mikel Laboa plazan ospatuko den ekitaldian izango da. Eguraldi txarra egingo balu, frontoira lekuz aldatuko da hitzordua. Musika kutsuko ekimena prestatu dute, eta noski, Udarregi Ikastolak eta Usurbilek, urriaren 5ean Orion jasotako lekukoa izango da ekitaldiko ardatz nagusia. “Lekuko hori, nola ez, denoi luzatu digute, bai guraso, bai ikasle, bai irakasle, bai langile, bai eta herritar edo herri eragileei ere. Kilometroak-en lekukoa aipatutako guztiei eskaintzeko” antolatuko dute urriaren 17ko ekitaldia. “Ekitaldi xume bezain alai egingo dugu. Gonbidatuta zaudete!”, adierazi dute antolatzaileek.

Nafarroa Oinezen laguntza premian

Igandean Zangotzan ospatuko den Nafarroa Oinezen laguntza behar dute. 40 bat lagun behar dituzte. Inork lagundu nahiko balu, Udarregi Ikastolako idazkari-tzarekin hartu emanetan jar dadila. Bertako telefono zenbakia: 943 36 12 16. Nafarroa Oinezeko berri, atari honetan: nafarroaoinez.net



Esan, izan, gozan lemapean ospatuko da Zangotzako herrian.

Usurbilgo Gaztetxea, eraiste arriskuan

GAZTETXEA DAGOEN LUR EREMUAN, EPE LABURREAN ETXEBIZITZAK EGITEA AURREIKUSIA DAGO

Usurbilgo Gaztetxea eraiste arriskuan da, hala ohartarazi dute gaztetxeok NOAUA!ra bidali duten idatzian. Egoera honen aurrean, udalerrri honek, "eremu guztiz libre bat" behar duela aldarrikatzen dute, hori argi utzi duela Gaztetxeak jorratu duen bi urteotako ibilbi-deak.

2012ko abuztuan ireki zutenetik Gaztetxea Alkartasuna Kooperatibaren egoitza ohian dago kokatua. Lur eremu horretan, etxebizitzak eraikitzea dago aurreikusia. Hona hemen, Gaztetxetik NOAUA!ra igorritako idatzia bere osotasunean:

"Kaixo herritar adiskide,

Ez gatozkizu berri onekin oraingo honetan. Udaletxetik jakin berri dugu hainbeste mimoz eta izerdiz eraikitako gaztetxea botatzeko arriskuan dela. Bi urte badira eraikin huts hau berpiztu genuela eta ordutik hona ez da etenik egon lau pareta hauen barru eta kanpokaldean. Albiste txarra da bai, baina gauza guztiek bere alde ona dutenez, denbora honetan hartutako indarra dugu gure alde.

Argi eta garbi gelditu da Usurbilek gaztetxe baten beharra duela, bertan ospatu diren dozenaka ekintzek hala adierazten dute. Baita parte hartu duten herritarrek ere, 3 urteko umetatik hasi eta 80 urteko-ra, denak pasa baitira beraien hazitxoak uztera noizbait. Eta



Afari beganoa egin zen aurreko ostegunean Usurbilgo Gaztetxean.

USURBILGO GAZTETXEA

"Nork ez du gozatu bi urte hauetan Gaztetxearen bizitzaz? Nor ez da dibertitu / formatu bertako ekintzekin, eta orain... ez dadila haria eten!"

zeresanik ez herriko gazteak, lokalak eta tabernaz gain, adin eta inguru ezberdineko jendearekin harremantzeko leku baten beharra ikusten baitugu.

Bestalde, eraikitzaera doazen eta guretzat omen diren etxe horietan ez dugu soluzio garbirik ikusten, benetako beharra duen gazte batek ezin baitio aurre egin babes ofizialeko etxe batek dakarren gastuari.

Udalaren aldetik zintzoagoa litzateke alkiler soziala benetan bultzatuko balu eta nola ez, herrian dauden etxe hutsen aurrean zerbait egiten hasi.

Beraz, nola etsi gaztetxearen magia arriskuan jartzera doazen honetan? Usurbilek eremu guztiz libre bat behar du edozein pertsona, proiektu eta ideien garapenerako, deitu Gaztetxe edo deitu nahi den moduan. Eta hori ezin da aurrera eraman udalaren azpiegiturretan.

Nork ez du gozatu 2 urte hauetan Gaztetxearen bizitzaz? Nor ez da dibertitu / formatu bertako ekintzekin? Eta orain berriz...

Ez dadila haria eten!"

Ekimen zaparrada

Usurbilgo Gaztetxeok kaleratu duten idatzi amaierako aldarria, "Ez dadila haria eten!" baliatuta, eraiste arriskuaren aurrean ekimen mordo antolatu dute datozen asteotarako; haur jolasak, Skate Eguna, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko kideekin irteera...

■ Urriak 25: 10:00-14:00 Hitzaldi-solasaldia: "Sexualitatea eta Erotika aztergai", Oiaro Kiroldegiko tatami gelan.

■ Azaroak 6: afari beganoa.

■ Azaroak 22: "Ez dadila haria eten" gaua: Juanantzoneko okupak+Kaotiko.

■ Abenduak 6: "Kaos y lentejas" jaialdia.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

USURBIL AUTOAK
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA
Ford
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!
zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea
943 36 10 79

Festa giroari agur, aurtengoz

S an Praixkuekin bukatu dira inguruotako festak. A zer nolako amaiera izan duten Aginagako jaiak. Azken txanparako utzia zuten onena. Oparoa izan da Aginagako Jai Bartzordeak festetako bigarren eta azken astebururako gordea zuen ekitaldi eskaintza. Haurren Egunarekin ekin zioten urriaren 10ean. Eskola Txikia itxita zegoen, jai zuten eta hurrek; egun osoko jolasgaraia, antolatzaileek prestaturiko ekimenekin. Gauean bertso afari musikatua. Larunbatean berriz, oraingoan joaldunak bidelagun zituztela ospatu zen oilasko biltzaileen kalejira. Eta bazkalostean, estropadak.

Emakumeen parte hartzea berriz aurten Aginagako Bandera etxeratzeko lehian. Garaile San Juan eta aginagar bat; Sarai Lizaso. Aipatzekoa, Kontxako Banderan finalista amaitu zuten lau taldeek parte hartu zutela larunbatean, emakumeen trainerila txapelketan. San Juanekin batera, Oriok, Zumaia eta Hibaika taldekoek. Hibaikak ez zuen lehiarako egun onena. Talde kide



Ostiralean ospatu zen Umeen Eguna Aginagan.

bat hil baitzen aurreko aste hasieran. Haren omenez minutuko isilunea egin zen.

Mutiletan, Orio txapeldun. Aginaga berriz laugarren, nahiz bere txandan aurkari izan

zuen San Pedrori minutu erdiko aldea atera. Sari nagusia ez zuten eskuratu, bai ordea publikoarena. Etxekoan txalo zaparrada eta babes handia jaso baitzuten aginagarrek.



Mutiletan, laugarren izan ziren Aginagakoak Trainerila Txapelketan.



Nesketan, Sarai Lizasok eta San Juanek eraman zuten Aginagako Bandera.



Oilasko biltzaileek zantantzarrak izan zituzten bidelagun.



Argazki eta bideo gehiago: noaua.com web orrian.

“Oso pozik gaude, eskola berria izan



2015 urte hasierarako amaituta egon beharko luke eraikin berriak.

Obretan daude Zubietako eskola atzealdean. 2015 hasterako amaitua beharko lukeen eraikin berri bat altxatzeko lanetan dabiltza. Trantsizio hilabeteak dira hauek ikasle, irakasle eta gurasoentzat. Baina pozik dira guztiak. Oso pozik, urteetako ahalegin eta lan nekezaren ostean, aspaldiko euren eskaerak betetze bidean baitira; gune aurrefabrikatuak alboratu eta hezkuntza eskaintza, Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik seigarren mailara zabaltzeko aukera izango dute, handitze lanei esker. Zubietako Eskola Txikiko zuzendari Rosa San Romanekin bildu gara, ikastetxean bizitzen ari diren aldaketak garai honen berri jasotzeko.

Urteetako eskaera gauzatzen ari da. Hainbesteko saiakeren ostean, lorpen ederra ezta?

Rosa San Roman: Oso pozik gaude eskola berria izango dugulako behingoz. Zubietak merezi zuen. Eskola herriko bihotza da, frontoia eta eli-

ROSA SAN ROMAN

“Zubietak merezi zuen. Eskola herriko bihotza da, frontoia eta eliza bueltarekin batera”

za bueltarekin batera. Lortu dugu. Halere, ikusi arte ezin genuen sinistu egingo zutenik, hasieran arazo handiak egon baitziren. Orain dena aurrera doala ikusten ari gara. Umeei gehiago kostatzen ari zaie ulertzea, zer egingo den eta zer prozesu eramango den.

Eskolak zer ekarpen egiten dio Zubietako bizitzari?

Herri batek bere umeak galtzen baditu, bere bizitzaren zati handi bat galtzen du. Eskola behar du, behar du jendea finkatzea bere herrietan eta bizitza egitea. Bestela lo egiteko herriak besterik ez dira. Eskola herriko proiektu handi bat da. Taldeak horren inguruan osatzen dira, jendea eskolan eza gutzen da. Txikiak garenean

sortzen ditugu gure afektu garrantzitsuenak. Horrek bizitza handia ematen dio eskolari. Umeak 2. mailara arte bakarrik geratzen badira, oraindik falta zaizkio urte batzuk laguntasuna sortzeko, harremanak egiteko, taldeak egiteko, ulertzeko. Hori galtzen badu, herriak bere zati handia galtzen du.

“Irtenbide bat eman behar zitzaion”

Handitze lanak hasi aurretik, ze baldintzetan egon zarete orain arte?

Azken lau urteotan jangela eraikin aurrefabrikatu batean zegoen. Hezetasuna sartzen zen. Hotz egiten zuen neguan eta oso bero udan. Ez ziren erosoak. Soinua egiten zuten zapaltzean. Eraikuntzok bolada baterako izaten dira, irautitze data izaten dute. Lehen Hezkuntzan bestalde, lehen eta bigarren mailako umeak beste gune aurrefabrikatu batean genituen egoera berean. Lehen hezkuntza gainera, des-

konektatua dago eskolarekin. Gaur egun gela horretan 18 haur zeuden eta jangela batz bestea, 12-14 lagun. Ulertu dezakegu une batean ez dagoela dirurik eta hala moldatu beharra dagoela. Baina irtenbide bat eman behar zitzaion.

Lanak martxan dira. Eskolaren handitzea nola burutuko da?

Egurrezko eraikin bat izango da, egungoari lotua, haren atzealdean. Erabilera anitzeko jangela, Lehen Hezkuntza, bi gela, liburutegi txiki bat, aterpe txiki bat izango du euria egiten duenean gurasoak babesteko. Jasangarritasuna kontuan hartu da, materialak begiratu dira. Ez du suposatzen obra handi bat egitea. Ez baita behar eraikin handi bat, eskola duin bat izateko. Lehenengo, azpiegitura saneatuko da, lurra jarri behar dute. Horren gainean enpresa batetik, eraikin berriko piezak ekarriko dituzte, tona askokoak. Paretak edota lehioak eginak ekarri eta momentuan jarriko dituzte.

“Ezango dugulako behingoz Zubietan”



Donostiako Udala, Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren onespena ezinbestekoa izan da.

Bide luzea jorratu behar izan dute Zubietako Eskola Txikiko haur, guraso eta langileek, ikastetxeko azpiegiturak handitzen ikusi arte. “Hau dena orain lortu da, baina duela urte asko jendea hasi zen eskatzen, eskola honen garai batean bezala berriz ziklo guztiak izatea”, adierazi dio NOAUA!ri Rosa San Roman, Zubietako Eskola Txikiko zuzendariak.

Ordutik, bide luzea jorratu behar izan dute. Lan asko egin dute, oztopo eta une zail askori aurre egin behar izan diete. Irakasle, guraso eta herri batzar ezberdinak bildu dira ibilbide luzea izan duen eskaera historiko honen bueltan. Zubietako eskolatik haietaz guztietaz oroitu nahi dute: “Eskerrak eman guztiei. Beraiek ireki zuten bidea eta guk eman diogu segida. Beraiek gabe ziur ez ginen hemen egongo”. Eskerrak eman nahi dizkiete baita Usurbilgo eta Donostiako udalei. Lorpena handia da, are handiagoa, gauden testuinguruan egonda. “Urte zailak izan arren, garai batean gurasoek eskatu zu-

PROZESUA, LUZEA

“Irakasle, guraso eta herri batzar ezberdinak aritu dira ibilbide luzea izan duen eskaera historiko honen bueltan”

tenean ziklo guztiak egotea, ekonomikoki ez ziren hain urte zailak. Kanpotik ikusten zen lortu zitekeela eta ez zen lortu. Aldiz orain, egoera ekonomikoa zailagoa izanik lortu da. Lorpen handia da”, San Romanen esanetan.

Lehen Hezkuntza kolokan

Zubietan, Donostia eta Gasteiz lotu ditu eskola txikiko aferrak. Zubietarrek eskola txikian Lehen Hezkuntza osoa izateko eskaera (orain arte LH 2. mailara arteko eskaintza izan dute) Gipuzkoako hiriburuko udalera eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera bideratu izan dute. Aspalditik. “Duela urte batzuk herriak ikusi zuten eskolak behar zuela Lehen Hezkuntza osoa jartzea. Gurasoek jarri zuten martxan

eskola handitzeko eskaera”, eskola txikiko zuzendariak oroitzen duenez.

Urte haietan, Zubietan handitu zen etxe berriak eraiki ostean, jaiotze-tasa igo zen... Baziren umeak. Baina gurasoen eskaeraren ostean heldu ziren Hezkuntza Sailaren ezezkoak. Hasiera batean gainera, Lakua ez zen agertu Lehen Hezkuntza jartzearen aurka soilik, Eskola Txikiko zuzendariak oroitzen duenez, “LH 1. eta 2. ere kentzea pentsatu zuten”. Lehen Hezkuntzarik gabe gertatzeko prestatu ziren zubietarrak. “Hezkuntzak esaten du ez dela izango hurrengo urtean. Uda iristen da, husten da Lehen Hezkuntzako gela aurrefabrikatua, baina azken unean Lakua iritzi aldatzen du”, San Romanen esanetan.

Erakundeen baiezkotza

Hezkuntza Sailaren iritzi aldaketa berri ona izan zen zubietarrentzat, baina eskola txikiko komunitatekoen eskaerak bete gabe jarraitzen zuten. “Duela pare bat urte, gurasoak Donostiako udaleko gobernu talde berriarengana joan ziren. Eskola zati berri bat erai-

kitzeko eskatu zioten Udalari. Udalak gaia aztertuko zuela adierazi zien”, eskola txikiko zuzendariak dioenez.

Une horretan bizkortzen hasten da prozesua. Aldez aurretik gurasoek landutako proiektua hartzen du lanketarako Donostiako Udalak eta jarrera itxia erakusten segitzen duen Hezkuntza Sailarekin harremanetan jartzen da. Eskolak ere saiakerak egiten ditu, Hezkuntza ezezkoan mantentzen da ordea. “Eskola berri bat egin beharrik ez dagoela esaten da. Gune aurrefabrikatua kentzeko eranskin bat proposatzen da”, San Romanen esanetan.

Azkenean aurten heldu da albiste ona. “Donostiako Udalak dio dena prest dagoela, Usurbilgo Udala lurra uzteko prest dago. Hezkuntza Sailak ere baiezkotza ematen du. Orduan izan zen gure poza, eskolako poza, herriko poza. Azkenean denak lanok egiteko ados daude”, San Romanen esanetan. Lanak hasi dira.

Lanak finantzatzeko, hitzarmen aldaketa

Usurbil eta Donostiako udalek lan gastuak erdibana, bakoitzak zorraren %50 ordainduko zuela adostua zuten hitzarmen batean.

Aho batez, Usurbilen

Zubietako Eskola Txikiko handitze obrak finantzatzeko modua aldatu dute ordea. Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntzekin Donostiako Udalak ehuneko ehuneko hartuko du bere gain, lan hauen gastua. Honenbestez, bi udalen arteko hitzarmena aldatu beharra ekarri du horrek. Irailaren 30ean burutu zen osoko ohiko bilkuran proposatu zen hitzarmen aldaketa. Aho bateko babesak izan zuten Usurbilen.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Euskara ikasteko matrikulazioa zabalik dagoen honetan, Udal Euskara Sailak gogorazi nahi du Udaetik diru-laguntza sendoak ematen zaizkiela euskara ikasleei. 2013/2014 ikasturtean adibidez, 41 usurbildarrek jaso zuten diru-laguntza eta 14.130 euro banatu ziren guztira.

Diru-laguntza eskaera hauek ekainean egiten dira (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da deialdia bera eta eskaera egiteko epea). Diru-laguntza eskuratu ahal izateko baldintzak hauek izaten dira:

-Ikastaroak irauten duen denboraren %80a Usurbilen errolatua egotea.

-Gutxienez, ikastaro osoan zehar, % 80ko asistentzia izatea.

-Gutxieneko aprobetxamendua gainditzea.

Diru-laguntza kopuruak berriz %60tik hasi eta %100 bitartekoak dira. Diru-laguntza kopurua bi gauzek baldintzatzen dute: langabetua izateak eta egindako ikasketa mailak. Informazio gehiago eskuratzeko Potxoenean edo bestela 943 371999 telefono zenbakira deitu.



Iaz 41 usurbildar izan ziren laguntza honetaz baliatu zirenak.

Lanbide Eskolako ikasleen tituluak

Oharra Lanbide Eskolatik. Ikasketak 2013an amaitu eta tituluaren eskaera egin zutenak, tituluak jasotzera gerturatu daitezke Zubieta-ara. 2014an ikasketak amaitu dituztenak ere Lanbide Eskolara hurbiltzera deitzen dute, tituluaren eskaera bertan egiteko.

350 langabetu irailean

Estatuko Enplegu Zerbitzuaren arabera, 350 langabetu ziren irailean Usurbilen. Abuztuan baino hamar langabetu gutxiago. Lanik gabeko herritar kopuruaren beherakada gizonen artean eman da (25-44 urte artean bereziki), emakumezkoen langabezia tasak abuztuko bera izaten jarraitzen baitzuen irailean.

Kontratazioak zertxobait gora egin du (331 lan kontratu erregistratu abuztuan, 378 irailean), nahiz kontratu ia denak, 359, aldi baterako sinatu diren. Gehienak gizonen artean.

Usurbilen bakarrik ez, langabezia-tasa Buruntzaldea osoan jaitsi da.

GARAI HURA GARAI

Urriak 19, igandea

Non: Sutegiko auditorioan

Noiz: 19:00etan

Andoni Egaña
Xabier Lizaso

BERTSO MUSIKATUA

Sarrera: 10€ (Aldez aurretik 8€ Bordatxo tabernan eta Noaua!n). Noaua!ko bazkideek, 6€tan Noaua!n aldez aurretik.

Nafarroa hegoaldeko euskalgintza laguntzeko elkartasun kanpaina



Iaz 112.000 euro batu ziren Nafarroa hegoaldeko euskalgintzarako.

Nafarroa hegoaldeko bertako produktuen ekoizpena eta zonaldeko euskara sustatu edo suspertzeko, elkartasun kanpaina antolatu du aurten ere Errigorak, Zazpiak Bat, Sortzen Ikastolen Elkarte eta AEKrekin elkarlanean. Nafarroako erriberako produktuez hornituriko saskiak salgai jarriko dituzte iaz bezala, erosi nahi dituen herritar oren esku.

“Bagatuz! Bagatuz ikasturte berriari ekitera! Gogotsu eta ilusioz erronka berriei atak zabaltzera”, adierazi dute. “Nafar Hegoaldeko uzta euskarari puzka” lemapean burutuko duten kanpainaren edizio berria, urria amaieran abiatuko

ERRIGORA

“Pare bat urte ekin genion kanpaina honi, eta ordutik hona egin dugun ibilbidea oparoa izan da”

dute, egitasmoak aurreko bi urteetan harrera ezin hobea izan ostean.

“Badira pare bat urte, saskien dinamika honi ekin geniona. Ordutik egindako ibilbidea oparoa izan da. Apurka-apurka, bide berriak landu eta helburuak handituz joan gara Errigoraren inguruan bildu den herritarren lanari esker. Zalan-tzarik gabe, dinamika honekin bat egin dugun herritarren gogo eta ilusioan dago orain arteko

arrakastaren giltza. Ehunka lagun herriz herri kartelak jartzen, eskuorriak banatzen, txioak bidaltzen, bideoak pasatzen, kutzak banatzen... Eta batez ere, herrigintza oinarri eta helburu dituen ekimen honekiko ilusioa eta sinismena transmititzen”, aipatu dute Errigorakoek.

